



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

2018KO AZAROAREN 15EKO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. Bateriaezintasunen Batzordearen irizpena, Euskal Irrati-Telebista herri-erakundeko Administrazio Kontseiluko hautagaiaren bateragarritasun-egoeraren gainean egina. Irizpenari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena, eta, hala badagokio, kontseilu horretako kidea izendatzea [11\11\07\03\00001]

Irizpena onetsi da eta Aiala Elorrieta Agirre izendatu da Euskal Irrati-Telebista herri-erakundeko Administrazio Kontseiluko kide.

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 15 DE NOVIEMBRE DE 2018

1. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades en relación con la situación de compatibilidad de la candidata propuesta y, en su caso, designación de miembro del Consejo de Administración del ente público Radio Televisión Vasca [11\11\07\03\00001]

Se aprueba el dictamen y se designa a Aiala Elorrieta Agirre miembro del Consejo de Administración del ente público Radio Televisión Vasca.





2. Lehenbailehen eztabaidatzeko Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak talde parlamentarioek batera egindako lege-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzko uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzeko. Aintzat hartzeari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\09\02\02\00024]

Aintzat hartzea onetsi egin da.

2. Debate y resolución definitiva en relación con la toma en consideración de la proposición de ley para su debate urgente formulada conjuntamente por los grupos parlamentarios Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, de modificación de la Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999. [11\09\02\02\00024]

Se aprueba la toma en consideración.





3. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, apustuak egiteko makinaren zein makina txanponjaleen erabilera kontrolatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00463]

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

108/2018

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, behin Jokoaren Euskal Behatokia sortuta, azterketa bat egin dezala, 8 hileko epean, jokoaren Euskadiko egoeraz, bereziki aintzat hartuz adingabekoenganako eragina. Txosten hori igorriko zaie Euskadiko jokoaren eta adikzioen eremuko partaidetza-organoei.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio adikzio-plan bat egin dezala, azterketaren emaitzetan oinarrituta, honako gai hauetara bideratua:

- Jokorako sarbidea ekiditea adingabeei eta debekatuta duten pertsoneri.
- Jokoaren erabilera desegokiari lotutako arriskuak gutxitzea.
- Jokoaren eta, oro har, substantziarik gabeko adikzioen arriskuez kontzientziatzea eta sensibiltzatzea, bereziki hezkuntzaren eremuan".

3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, en relación con el control del uso de máquinas para hacer apuestas y de máquinas tragaperras. [11\11\02\01\00463]

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

108/2018

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, una vez constituido el Observatorio Vasco del Juego, elabore, en el plazo de 8 meses, un estudio sobre la situación del juego en Euskadi, con especial consideración a su aficción a las personas menores de edad. Dicho informe será remitido a los órganos de participación del ámbito del juego y de las adicciones en Euskadi.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, basándose en los resultados de dicho estudio, elabore un plan de acción orientado a:

- Evitar el acceso al juego a personas menores y a aquellas que lo tengan prohibido.
- Reducir los riesgos asociados a un uso inadecuado del juego.
- Concienciar y sensibilizar sobre los riesgos del juego y de las adicciones sin sustancia en general, especialmente en el ámbito educativo".





4. Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, 2019ko Aurrekontuetan eskola publikoetako ekipamenduak mantentzeko eta hobetzeko inbertsioa handitzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00461]

EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

109/2018

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

1. 2019-2023 aldirako plan berriaren planifikazioarekin hasi aurretik, 2014-2018 aldirako Hezkuntza Azpiegiturak Hobetzeko Planaren ebaluazioa egin eta Hezkuntza Batzordean aurkez dezala, eta, ebaluazio horretan oinarriturik, ezar ditzala plan berriaren lehentasunak.
2. Aipatu ebaluazioarekin batera, kontuan izan ditzala ondoko irizpideak 2019-2023 aldirako azpiegituren plana landu aurreko gogoeta egiteko garaian, baita hezkuntza-komunitatearekin elkarrizketan aritzeko ere: eskolatzeko-premiak, irisgarritasuna, jolaslekuak estaltzeko beharrak, heziketa fisikorako espazio-beharrak, segurtasuna, eraikin edota espazio berrien beharrak, jantokien beharrak, jantokietan sukaldea ezartzeko eskariak, kutsadura akustikoa eta interesekotzat jo daitezkeen beste batzuk.
3. Ikastetxearekin parteka dezala gauzatu beharreko proiektua, ikastetxearen hezkuntza-proiektura eta beharretara ahalik eta hobekien egokitzeko, halako moldez non 2019-2023 aldirako plan berriak erantzuna emango dien arlo hauetako lehentasun nagusiei: eskolatzeko-beharrak, irisgarritasuna eta araudira eta metodologia eta hezkuntza-proiektu berrietara egokitzea, horretarako sinergiak sortzen dituzten diseinu berritzaileak baliatuz.

4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa al aumento de la inversión destinada al mantenimiento y la mejora de los equipamientos escolares públicos en los Presupuestos de 2019. [11\11\02\01\00461]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES y PV-ETP.

109/2018

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación del Gobierno Vasco a:

1. Llevar a cabo y presentar ante la Comisión de Educación la evaluación del Plan de Mejora Infraestructuras Educativas 2014-2018 antes de comenzar con la planificación del nuevo plan para el periodo 2019-2023, y que, en base a dicha evaluación, se establezcan las prioridades del nuevo plan.
2. Tener en cuenta, junto con la evaluación citada, los siguientes criterios a la hora de llevar a cabo la reflexión previa a la elaboración del plan de infraestructuras 2019-2023, así como en el diálogo con la comunidad educativa: necesidades de escolarización, accesibilidad, necesidades de cubrimiento de las zonas de juego, necesidades de espacio para la educación física, seguridad, necesidades de nuevos edificios y/o espacios, necesidades de los comedores, solicitudes para incluir cocinas en los comedores, contaminación acústica y otros que pudieran considerarse de interés.
3. Compartir con el centro educativo el proyecto a ejecutar, para que se adecue al proyecto educativo y a las necesidades del centro de la mejor manera posible, de manera que el nuevo plan para el periodo 2019-2023 dé respuesta a las principales prioridades en los ámbitos de las necesidades de escolarización, la accesibilidad, y la adecuación a la normativa y a las nuevas metodologías y proyectos educativos, contando para ello con diseños innovadores que produzcan sinergias.





4. Behar diren funtsak berma ditzala Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko eta azter dezala aurrekontuko zuzkidura gehitzeko aukera, baldin aurkeztu eta kanpoan geratu diren proiektuetako batzuk premiazkoztat jotzen badira".

4. Garantizar fondos suficientes para la financiación de los gastos destinados a la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la Administración educativa y estudiar la posibilidad de incrementar la dotación presupuestaria en caso de estimarse que algunos de los proyectos presentados que hayan quedado fuera sean urgentes".





5. Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako legez besteko proposamena, autogobernu-ponentziari eta onartutako oinarriei buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00453]

Ezetsia.

5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a la ponencia de autogobierno y las bases aprobadas. [11\11\02\01\00453]

Rechazada.





6. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, abiadura handiko trenaren obretan gertatzen ari diren lan-istripu larriei amaiera emateari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.
[11\11\02\01\00466]

EA-NV, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

110/2018

- "1. Eusko Legebiltzarrak Lan eta Justizia Sailari eta, zehazki, Osalani eskatzen dio jarrai dezala aztertzen AHT abiadura handiko treneko lanetako istripuak, lan-arriskuak prebenitzeko gidak –azpiegitura handietarako espezifikoak– etengabe eguneratzeko eta gida berriak egiteko.
2. Eusko Legebiltzarrak transferitutako Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari eskatzen dio jarrai dezala ikuskaritza-jardueretarako kanpainak planifikatzen Azpiegitura Obra Handietan Lan Arriskuak Prebenitzeko Jarraipen Batzordeari lotutako lanetan.
3. Eusko Legebiltzarrak Lan Ikuskaritzari eskatzen dio jarrai dezala lehentasuna ematen abiadura handiko trenaren obretako langileen segurtasunari eragiten dioten baldintzak ikuskatzeari eta azter ditzala, beste gai batzuen artean, kontratazio-baldintzak, lan-ordutegiak, segurtasun-neurriak, makineria eta lan-baliabideak, eta, beharrezkoa izanez gero, presako neurriak har ditzala egindako ikuskaritzaren emaitzen arabera".

6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre poner fin a los graves accidentes laborales que están sucediendo en las obras del tren de alta velocidad.
[11\11\02\01\00466]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, SV-ES y PV-ETP.

110/2018

- "1. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Trabajo y Justicia, y concretamente a Osalan, a que siga analizando los accidentes que se producen en las obras del tren de alta velocidad (TAV), para actualizar permanentemente y elaborar nuevas guías de prevención de riesgos laborales específicas para las grandes infraestructuras.
2. El Parlamento Vasco insta a la Inspección de Trabajo y Seguridad Social transferida a que continúe planificando campañas de actuaciones inspectoras de las obras vinculadas a la Comisión de Seguimiento de la Prevención de Riesgos Laborales en Grandes Obras de Infraestructura.
3. El Parlamento Vasco insta a la Inspección de Trabajo a que continúe priorizando la inspección de las condiciones que afecten a la seguridad de los trabajadores en las obras del tren de alta velocidad, analizando entre otras cuestiones las condiciones de contratación, los horarios laborales, las medidas de seguridad, la maquinaria y los medios de trabajo, y a que en su caso adopte urgentemente medidas procedentes de acuerdo con los resultados de la inspección realizada".





7. Honako ekimen hauek batera eztabaidatu eta behin betiko ebazpena hartzea:

EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, alokairu-politika publikoak indartzeari buruz. [11\11\02\01\00457]

Mozioa, Iñigo Martínez Zatón Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen IX. kapituluaren aplikazioari buruz. [11\11\03\00\00099]

Mozioa, Maider Otamendi Tolosa EH Bildu taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Etxebizitza Legearen garapenari buruz. [11\11\03\00\00101]

EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

111/2018 Legez besteko Proposamena

36/2018 Mozioa

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio txosten bat egin dezala, 2019ko lehen hiruhilekoan zehar, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeari buruz, argitzeko zein kontu edo gai gauzatu ahal dituzten udalek modu zuzenean beren eskumenen barruan, eta zein gaik behar duten, alde zuzenetik, autonomia arloko garapen-araudiaren ebazpena, nahitaezkoa udalek egingo dituzten jarduerak gaitzeko.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez dezala, 2019ko lehen hiruhilekoan zehar, Etxebizitza Legearen garapenerako plangintza xehe bat, garapenean eta haren egutegian egin beharreko urratsen gaineko orientabide bat izate aldera, garatzeke dauden erregelamenduzko xedapenei eta Legearen benetako garapenerako gainerako alderdi guztiei begira, Legebiltzar honek 2017ko urriaren 27an adostutakoa betez.

7. Debate conjunto y resolución definitiva de las iniciativas siguientes:

Proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre el reforzamiento de las políticas públicas de alquiler. [11\11\02\01\00457]

Moción presentada por D. Iñigo Martínez Zatón, parlamentario del grupo Elkarrekin Podemos, relativa a la aplicación del capítulo IX de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda. [11\11\03\00\00099]

Moción presentada por D.ª Maider Otamendi Tolosa, parlamentaria del grupo EH Bildu, relativa al desarrollo de la Ley de Vivienda. [11\11\03\00\00101]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES y PV-ETP.

Proposición no de Ley 111/2018

Moción 36/2018

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a realizar un informe, a lo largo del primer trimestre de 2019, sobre la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda, esclareciendo las cuestiones o materias que son directamente ejecutables por los ayuntamientos, dentro de sus competencias, y aquellas otras que requieren de una previa disposición normativa de desarrollo de ámbito autonómico, y que resulte imprescindible para habilitar futuras actuaciones de los ayuntamientos.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, a lo largo del primer trimestre de 2019, presente una planificación detallada para el desarrollo de la Ley de Vivienda, en aras a disponer de una orientación en torno a los pasos que se deben dar en el desarrollo y su calendarización, a las disposiciones reglamentarias pendientes y a todos los demás aspectos para el desarrollo efectivo de la Ley, cumpliendo con lo acordado por este Parlamento el 27 de octubre de 2017.





3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio onar dezala, gehienez ere 9 hilabeteko epean, Etxebizitza Legearen funtsezko elementua den eskubide subjektiboa arautzeko dekretua, aintzat hartuta eragileek aurkezturiko zuzenketak.
4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko eta etxebizitzaren funtzio soziala bermatzeko, erregelamendu bidez gara ditzala, gehienez ere 9 hilabeteko epean, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen IX. kapitulari dagozkion alderdiak, zeinak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak baitira, bai eta alde zuzenetik autonomia arloko garapen-araudiaren ebazpena behar duten haiek ere, nahitaezkoa denean udalek egingo dituzten jarduerak gaitzeko.
5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala hobetzen etxebizitza gaietan eskuduna den sailaren integrazio operatibo eta funtzionala, bai eta haren mendekoak diren sozietate publikoena ere (VISESA eta ALOKABIDE).
6. Eusko Legebiltzarrak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari indartu ditzala alokairuari buruzko politika publikoak, haietara bideratuz, aurrekontu-ahalmenaren baitan, 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planari buruzko eztabaidan onartutako ebazpenetan adostutakoa betetzeko behar diren baliabideak; eta bermatuz hemendik aurrerakoan ez dela planifikatuko babes publikoko etxebizitza bakar bat ere salmenta erregimenean. Halaber, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezar ditzala beharrezkoak diren neurriak arrazoizko prezioan eskuratzeko moduko etxebizitzaren parke bat bermatzeko, batez ere etxebizitza hutsak mobilizatuta, alokairua indartzeko neurri fiskalak sustatuta eta aldian-aldian eguneratuko den alokairu-prezioen erreferentziarako indize bat ezarrita".
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que apruebe, en un plazo máximo de 9 meses, el decreto que regule el derecho subjetivo que es el elemento fundamental de la Ley de Vivienda, tomando en consideración las enmiendas presentadas por los diferentes agentes.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, con el fin de movilizar la vivienda deshabitada y garantizar la función social de la vivienda, desarrolle reglamentariamente en un plazo máximo de 9 meses los aspectos referidos al capítulo IX de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda, que son competencia del Gobierno Vasco, y aquellos que requieren de una previa disposición normativa de desarrollo de ámbito autonómico, y que resulte imprescindible para habilitar futuras actuaciones de los ayuntamientos.
5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir mejorando la integración operativa y funcional del departamento competente en materia de vivienda y de las sociedades públicas de él dependientes (VISESA y ALOKABIDE).
6. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que refuerce las políticas públicas de alquiler, destinando, de acuerdo con la disponibilidad presupuestaria, los recursos necesarios para cumplir lo acordado en las resoluciones aprobadas en el debate del Plan Director de Vivienda 2018-2020, y garantizando que, de aquí en adelante, no se planificará una sola vivienda de protección pública en venta. Asimismo, el Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que implemente las medidas necesarias para garantizar un parque de vivienda asequible en alquiler, especialmente movilizándolo la vivienda vacía, fomentando medidas fiscales que favorezcan el alquiler y estableciendo un índice de referencia de precios de alquiler actualizable periódicamente".





8. Mozioa, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, Gasteizko José Uruñuela dantza-kontserbatorioa 2018-2019 ikasturtean euskal hezkuntza-sare publikoan sartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.
[11\11\03\00\00100]

EA-NV, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

37/2018

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dio 2018. urtea amaitu aurretik formalizatu dezala Vitoria-Gasteizko Udalarekin José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa hezkuntza-sare publikoan integratzeari buruzko hitzarmena.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dio Hezkuntza Sailaren menpeko hezkuntza-sarean behin betiko integratzeko prozesua ahalik eta azkarren izan dadila, 2019an bertan, trantsizio normalizatua eta ikastetxearen egonkortasuna sustatuz.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dio beharrezko jarduerak burutu ditzala integratzearako behar den aurrekontu-zuzkidura gaitze aldera".

8. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a integración del conservatorio de danza José Uruñuela de Vitoria en la red pública vasca de enseñanza en el curso 2018-2019.
[11\11\03\00\00100]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EP, SV-ES y PV-ETP.

37/2018

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación del Gobierno Vasco a que formalice antes de finalizar el año 2018 el convenio sobre la integración del Conservatorio Municipal de Danza José Uruñuela en la red pública de enseñanza con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Así mismo, el Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación del Gobierno Vasco a que el proceso de integración definitiva en la red de enseñanza dependiente del Departamento de Educación se produzca a la mayor brevedad posible, dentro de 2019, impulsando una transición normalizada y la estabilidad del centro.

El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación del Gobierno Vasco a llevar a cabo las actuaciones necesarias para habilitar la dotación presupuestaria necesaria requerida para la integración".





9. (berria) Adierazpen instituzionala, El Salvadorreko emakume askok berezko abortua izateagatik pairatzen duten egoerari buruz. [11\11\05\00\00056]

Legebiltzarburuak adierazpena irakurri du.

"Eusko Legebiltzarrak informazioa lortu du El Salvadorren emakume askok berezko abortu baten aurrean pairatzen duten egoera izugarriari buruz. Aipatu beharra dago haurdunaldi horietako asko haur eta gazteek izaten dituztela, erabat nahi gabean eta, gehiegitan, oso gertuko senideek egindako sexu indarkeriaren ondorioz. Horrek batere babesik gabeko egoeran uzten ditu haur eta gazte horiek.

Era berean, emakume asko espetxeritzen dituzte abortu boluntarioko susmo hutsagatik, epaiketa justurik eta defentsarako gaitasunik gabe.

Berriki, El Salvadorreko emakumeen Giza Eskubideen defentsarako aktibistek jakinarazi digute zein egoeratan dagoen Imelda Isabel Cortez Palacios emakume salvadortarra, San Miguel espetxean dagoena. Giza hilketaren saiakuntza astundua leporatu diote, ospitalez kanpoko erditzea izan duelako. Prozedura judiziala iragan azaroaren 12rako zegoen aurreikusia, eta berriro ere atzeratu da Fiskaltza ez zelako bertaratu. Bitartean, Imelda Isabel Cortez Palaciosen espetxean jarraitzen du injustuki.

Horregatik guztiagatik,

Eusko Legebiltzarrak El Salvadorreko erakundeei eskatzen die bermatu dezatela epaiketa justu bat, berme legal guztiak izango dituen, eta baita defentsa egokia ere Imelda Isabel Cortez Palaciosentzat eta egoera berean dauden emakume guztientzat, haurdunaldiaren etenaldi boluntarioa egin izaneko akusazioaren aurrean".

9. (nuevo) Declaración institucional sobre la situación que padecen muchas mujeres en El Salvador ante un aborto espontáneo. [11\11\05\00\00056]

La presidenta da lectura a la declaración.

"El Parlamento Vasco ha obtenido información respecto a la terrible situación que padecen muchas mujeres en El Salvador ante un aborto espontáneo. Es importante señalar además que muchos de estos embarazos se dan entre niñas y jóvenes, totalmente indeseados y consecuencia de violencia sexual practicada en demasiadas ocasiones por parte de familiares muy cercanos, lo cual deja a estas niñas y jóvenes en situaciones de total desprotección.

Asimismo, muchas mujeres son enviadas a prisión ante la sospecha de un aborto voluntario, sin la celebración de un juicio justo y sin capacidad de defensa.

Recientemente, activistas en la defensa de los Derechos Humanos de las mujeres en El Salvador nos comunicaron la situación en la que se encuentra Imelda Isabel Cortez Palacios, mujer salvadoreña, encarcelada en el Centro Penal de San Miguel, acusada de homicidio agravado en grado de tentativa por el hecho de haber tenido un parto extra hospitalario, cuyo procedimiento judicial estaba previsto celebrarse el día 12 de noviembre pasado, y que nuevamente fue aplazado por falta de asistencia de la Fiscalía, mientras Imelda Isabel Cortez Palacios sigue en prisión injustamente.

Por todo ello,

El Parlamento Vasco pide a las instituciones de El Salvador que velen por la celebración de un juicio justo, con todas las garantías legales y defensa adecuada para Imelda Isabel Cortez Palacios y todas las mujeres que se hallen en la misma situación, ante una acusación de práctica de interrupción voluntaria del embarazo".

